

EUSKAL ANTZERKI MODERNOAREN AMA

Esan beharrik ere ez, Katariñe Eleizegiren garaian orain baino urriago zirela emakume idazleak. Urritasun hori areagotu baino ez da egiten antzerkia idazten zuten emakumeak zenbatzera joz gero. Euskal antzerki modernoaren ama izendatua izan da Katariñe Eleizegi, emakumezko lehen antzerki idazlea, Donostian jaio zen 1889ko apirilaren 6an eta Burgosen burutu zituen irakasle-ikasketak. Irakasle-ikasketak egin izana izango da, ondorengo orrialdeetan ikusiko dugun moduan, hainbat eta hainbat emakume antzerkigilek

amankomunean edukiko duten zerbait, Gazte-gaztetatik izan zuen Katariñe Eleizegik irakurtzeko eta idazteko zaletasuna eta grina. Osasun sendokoa ez zen ordea itxuraz, eta bere denbora liburu artean eman zuelarik, osasun-arazo hauek eduki zuten nonbait horretan zerikusirik.

Bere arrakastarik handiena, 1916. urtean lortu zuen Katariñe Eleizegik, Garbiñe obrarekin. Donostiako Euskal Festan saria irabazi eta txalo artean antzeztu zen obra hau. Urte haietan, Gazteluko (Gipuzkoa) Gazte Alaiak antzerki-taldeak herri askotan eman zuten *Garbiñe*.

1

Toribio Alzaga bere taldearekin Maria Dolores Agirre Euskal Iztunde Eskolako jarraitzaile izan zena eskuinean duela.



2

Garbiñe obrari buruz, *El Liberal* Guipuzcoano-ri egindako adierazpenetan, zera dio 1917ko abenduaren 24an Toribio Alzagak: "Maila altuko lan dramatikoa da, garapen zoragarria duena. Era harrigarri batez gainditu ditu antzerkia idazten eskarmentua duten makina bat autorek estropozo egin izan duteneko hainbat koska. *Garbiñe* obrak ez dirudi hasberri baten lana, iristen ari den batena baizik. Hortik atera genezakeen ondorioa honokoa da: Eleizegi andereñoa hasi berritan iritsi dela. Ongi etorria izan bedi".

Garbiñe obraren haria gaur egunetik hain urruneko eta desberdina den XIII.



Katariñe Eleizegi
(1899-1963)

mendean garatzen da eta Larrain familia aberatsaren jauregian kokatzen. Garaia urrunekoa izanagatik, dena den, gaurkotasunik sekula gaitzen ez duen gaia du ardatz antzezlan honek: maitasuna, hain zuzen ere. Ezinezko amodio baten historia da: Ibon eta Egurtza maitemindurik daude Liderekin; Lide bera eta *Garbiñe*, itsuturik Ibonekin. Korapilo horren inguruan kiribiltzen dira obraren hiru egintzak. Maitasuna sakrifizioarekin uztartzen da istorio honetan, eta behar bada horregatik, *Garbiñe* lana Benito Pérez Galdós antzerkigile espainiarraren *Marianela* obrarekin erkatu izan da. Dena den, halako erkaketarik egin izan dutenek ere onartzen dute *Katariñe* Eleizegik trebetasun handia erakusten duela, bai pertsonaiak sortzean, bai abiapuntuak ezarri nahiz egoerak planteatzean. Egoera horietan, beti ere, dramari euskal kutsu nabarmena ematen dio idazleak.

Aurrez aipaturiko *Garbiñe* Katariñe Eleizegiren obrarik arrakastatsuen eta publikoak gehien onartu zuena izan bazen ere, idatzi zuen beste lanik: *Loreti* 1918an eta *Yatsu* 1934an. Argitaratu gabe geratu zitzaion laugarren bat: *Catalina de Erauso* obra, hain justu.

ABERTZALETASUNA ETA DIBERTIMENTUA

Katariñe Eleizegiren antzezlanetako elkarrizketak hainbat gogoetaz zipriztinduak ageri dira han eta hemen. Gogoeta hauek dira egilearen zorroztasun, asmamen eta fintasunaren lekukoak: istorioa mezutik bereiztea zaila den era batean idatzita daude bere testu guztiak, garai hartan ohiko zen bezala, abertzaletasuna sustatu guran. Dena den, abertzaletasunaren pizgarri izan nahi hau, nabarmenagoa zen Bilbo aldean sortu zen antzerki-korrante paraleloak errepresentatzen zituen obren kasuan. Katariñe Eleizegik idatzitakoetan dibertimentuak pisu gehiago zuen.

Abertzaletasuna goratu nahiaren adibide bat, honokoa izan daiteke: Loreti obran, Loreti protagonistak Laro maite du, baina Karisiok preso dauka. Loretik ez ditu Karisiok eskainitako apaingailu eta edertasunak maite, askatasuna baizik. Askatasuna lortu ezin duela ikusita, Loreti pertsonaia besar pozoinduak hartzen saiatuko da bere bizitzari amaiera emateko, heriotza esklabu-bizitza baino hobea delakoan. Sirtek galarazten dio horrelakorik egiterik, Abertzaletasunak sakrifizioa eskatuko die behin eta berriz pertsonalei.

3

*Garbiñe antzezlanaren
ikustaldia.*



Toribio Alzagaren inguruan mugitu zen Katariñe Eleizegi, hainbat emakume antzerkilariren -antzezle zein idazle-moduan. Toribio Alzagari bere eskolako zein autorek eman zien arrakasta gehien galdetu zitzaionean, Katariñe Eleizegi izan zela arrakastatsuena aitortu zuen behin: "Katariñe Eleizegi, behin eta berriz goratu arren sekula nahikoa laudorio jasoko ez dituen Garbiñe obraren bidez". Katariñe Eleizegiren izpiritu behatzailea eta bere sentsibilitate handia gorai patzen ditu Alzagak. Garbiñe obra, bere egileak kuttuntasun handiz landu zuela onartzen du, gainera.

Katariñe Eleizegik, garai hartako autore askok ez bezala, Euskal Herriaren ezagutza sakona zuen. Bere osasuna guztizkoa ez bazen ere, horrek ez zion itsasertz kantabriarrean zehar bidaiatzerik galarazi, eta ia bere osotasunean ezagutzen zuen aipaturiko ingurune geografikoa. Intuizio eta zolitasun handiz ikertu zituen herri desberdinetako ohiturak. Hainbat datu bildu zituen, eta datu

hauek "xehetasun trszendentalengandik hurbil egotea ahalbideratu zioten", Toribio Alzagaren hitzetan esateko.

Herrietako ezaugarri bereizleak Katariñe Eleizegiren ikerketarako gaiak izaki, herri ttipietako mediku, alkate eta idazkarien gaineko hamaika pasadizo xebreren jakinaren gainean zegoen. Toribio Alzagaren taldera biltzean, pasadizo hauek bata bestearen segidan kontatzen omen zituen, anekdota hauen entzule zirenen gozamenerako. Herri bat aukeratu eta bertan geratu ohi zen bizitzen bolada batez Katariñe Eleizegi; bide batez, ohitura eta pasadizoak biltzeko baliatzen zuen bere egonaldia. Auritz herrian (Nafarroa) adibidez, lauzpabost hilabete eman zituen. Aldi luze batean izan zen Iruñeko magisteritza-eskolan euskarazko irakasle ere, hain zuzen, 1923ko urtarrilaren 5ean Nafarroako Foru Diputazioak egindako batzarrean izendatu zen horretarako. Halako ezkutaldi luzeen ondoren, denek espero izaten zuten berritasunen bat idatzi izango zuela eta irrikaz itxaroten zuten bere itzulera.

PUBLIKO XEHEA ETA ESPEZIALIZATUA

Toribio Alzagak Loreti-z, Eleizegiren bigarren antzerkilanaz, zera dio: "Ez da Garbiñe obraren mailara iristen, nahiz eta saritutako lanen artean sartzen den. Bertan erabiltzen duen gaia kantabriar gerrateena da. Jasotzen dituen deskribapenak miresgarriak dira". Bigarren antzezlan hau, kultuago jotzen da. Kritikarentzat egindako obratzat, publikoari begira egindakotzat baino gehiago. Alzagak aipatzen duenez, antzezlan honetan jasotzen den datu eta gertaeren

bildumak, apur bat pisu bilaka dezake lan hau prestakuntzarik gabeko ikuslearen begietara. Izan ere, obra honetan, ekintza mugatua da (eta dibertimentua ere mugatua da, horrenbestez) nahiz eta bertako pasarteek, garaiaren ikerketa sakona uzten duten agerian. Ikusgarritasun eszeniko handiko obra izaki, Berlinetik armadura berezi bat ekarrarazi zuten obra taularatu ahal izateko.


5



Garbiñe-ren iragarki-kartelak.

Behin eta berriz aintzakotzat hartu ditugun Toribio Alzagaren iritzietara bueltatuz, 1926.eko martxoaren 11n, La noticia delakoan argitaraturiko elkarrizketa batean, une horretan antzezlanik gustukoena zeintzuk dituen galdetzen zaionean, esanguratsua da zera ikustea: ez du inolako zalantzarik Garbiñe aipatzean gustukoena bezala -Alzaga berberarena den Bost urtian obra delarik, apur bat lotsagorrituta, hori bai, segidan aipatzen duen bigarrena-.

Publikoa eta kritika espezializatua, biak asetzeko moduko lanik egin zuen, beraz, Donostiako antzezlanegileak. Nafarroako Lizarran, hirurogeita hamalau urte zituela hil zen Katariñe Eleizegi, 1963. urteko azaroaren 19an, txikitatik pairatzen zuen bronkitis kronikoaren eraginez.



Loreti antzezlanaren ikustaldia.



Loreti-ren iragarki-kartela

ZUZIRIARI TINKO EUTSIZ

1903ko ekainaren 8an jaio zen Maria Dolores Agirre. Errezilen jaio zen arren, oso gazterik inguratu zen Donostiara, maistra-ikasketak egitera, sekula umeen maistra izango ez zen arren. "*La casa de la pradera*-ko neskatoaren pare" sentitu omen zen Donostiaratu zenean. Ondo hartu zuten ordea, gaztelera gehiegirik ez zekien arren. Honenbestez, Donostian, Euskal Iztundearen taldera inguratu zen, Toribio Alzagaren ondora bilduz.

1933. urtean, Iztunde Ikastolako irakasle-plaza eman zion azterketa-lehiaketa gainditu zuen. 1936. urtean ordea, gerra bitarteko, eskola hori itxi egin zuten, Toribio Alzaga kartzelara eta Maria Dolores Agirre udaletxeko Obra Sailera eraman zituztelarik.

7



Maria Dolores Eugenio Lasheras senarrarekin.



Maria Dolores Agirre (1903-1997)


1941ean hil zen Toribio Alzaga, eta une horretatik aurrera, Maria Dolores Agirreri egokituko zaio Euskal Iztundearen bigarren aroan (1953-1981) mugimendu honen buru eta arima izatea: Toribio Alzagak ordurarte zeraman zuzia berak eramango du aurrerantzean, nolabait esateko. Baina ez zen Maria Dolores jomuga bakarreko emakumea. Ez horixe. Bere ezinegonak, hainbat arlotan lan egitera bultzatu zuen: antzerkiaren munduan moldatu, sortu eta itzulitako obrez janda, aipagarria da 1953. urtean, beste donostiar batzuen laguntzaz, Iztunde Ikastola berriro zabaldu ahal izateko egindako ahalegina. Eman ere, fruitu oparoak emango zituen ahalegina.

Iztunde Ikastola zabaltzea lortu ostean, bertan jardun zuen hamasei urtetik gorakoei euskara irakasten, harik eta erretiratu zen arte. Urtean ehunen bat ikasle izaten omen zituen Maria Doloresek bere "euskaltegian". Maria Dolores Agirreren ezinegon eta ardura euskaltzalearen norainokotasuna agerian uzten duen datu bat gehiago ere bada, beste askoren artean: hogeita bost bat urtean aritu zen asteen bi aldiz ordubeteko irratsaioak euskaraz egiten Basarri, Oñatibia, Endrike Zurutuza eta beste hainbatekin.

8



Amal Antzeztanaren erakustaldia eta liburuaren azala



Egan (1950) aldizkarian argitaratutako Aukeran maukera, azkenian...okerra

Euskara irakasten hasi bezain prestu ekin zion antzerkien moldaketa-lanak egiteari ere. 1949. urtean, Azpeitiko Nekazari Alkartasunak Santo Tomasetarako antzerki-txapelketa antolatu zuen eta Maria Dolores Agirre suertatu zen irabazle. *Aukeraren maukera*, azkenian... okerra izena zuen bakarrizketa saritu hura izan zen gerraondoko urteetan Euskal Iztundearen bigarren aroaren atariko. 1953.eko Santo Tomas egunez Toribio Alzagaren Ramuntxo eskaini zuten Donostiako Kurasaalean, Euskal Iztundearen bigarren aroa behin betiko abiaraziz. Urte horretatik aurrera, tradizio bihurtuko zen Santo Tomas eguneko urteroko antzerki-emanaldia Donostian -emanaldi hau usualki Antzoki Zaharrean ospatzen zen eta

euskaltzale andana biltzen zuen bere altzora, jakingura handia sortzen zelarik obra ezberdinen inguruan. Gainera, bertsolariak ere izaten ziren tartean, antzezlanekin batera.

Euskal Iztundeak gerraurreko teatro-dinamika berri eta Frankismoko urte latzetan antzerkiaren zuzia pizturik mantentzea lortu zuen, eta hau, hein handi batean, Maria Dolores Agirreren lan izugarriari esker gertatu zen.

Aukeraren maukera, azkenian... okerra bakarrizketaz gain, idatzi zuen Maria Dolores Agirrek sorkuntzako beste teatro lanik ere: 1958ko abenduaren 21ean Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatu zen *Audek maltzurkeria!* izenburuduna, hain zuzen.



Maria Dolores Elbira Zipitria eta honen ahizpa monjaren erdian.



Maria Dolores bere antzerki-taldearekin.

ITZULTZAILE OPAROA

Baina sorkuntza lan hauetaz landa, itzultzaile bezala egin zituen Agirrek bere lanik gehienak eta oparoenak. Garai hartan pil-pilean zeuden autoreak, polemikaren zurrunbiloaren erdian zeudenak, itzuli zituen usualki: horren lekuko dugu Garcia Lorca bezalako autore bat itzultzeko izan zuen ausardia -ez soilik antzezlanaren edukiagatik, baita Granadako idazlea darabilen gaztelera jostaria euskarara isurtzearen zailtasunagatik ere-. Garcia Lorcaren Iturri-agor (*Yerma*) itzultzeaz gain, H. Gheon-en Lourdesko lorea egokitzen ere Maria Dolores Agirrek egina da, beste honoko hauek ere bere itzulpenaren fruitu diren era berean: Tagoreren *Amal*, Casonaren *Txalupak jaberik ez* eta *Irugarren itza*, Lozanoren Oriko txoria Orin, edota Michael V Gazzo-ren *Txapela bete euri*. Calvo Soteloren *Etzan atejoka etorri*, López Rubioren Beste ertza eta Guerreroren Iparragirre egokitzeaz ere arduratu zen Maria Dolores Agirre. Kemen handiz lan egin zuenaren lekuko da hau guztia.

Euskal Iztundearen bigarren aro jotzen denaren azken urteetan, Antonio Buero Vallejoren *Ilumpe* goritan itzuli zuen euskarara (1973), eta baita Pio Barojaren *Altzateko jaun* ere (1979), azken hau, Felipe Yurramendirekin lankidetzan. 1975. urtean erretiratu zen Maria Dolores Agirre, nahiz eta geroztik ere antzerkigintzan 1981 era arte lagundu. Euskara irakasten, berriz, ia hil arte jarraitu zuen. Eusko Jaurlaritzak 1983 urtean Euskadiko Antzerti Zerbitzua sortaraziz gero, Iztunde Ikastola euskara irakastera mugatuko da Felipe Yurramendiren ardurapean.



Euskarazko eskolak ematen.



Udalaren zilarrezko domina jaso zuen egunekoa. Jesus Mari Alkain alkateak jarri zion Ramon Labajen eta Markel Izagirrearen txalo artean.

PERFEKZIONISTA BATEN LANA

Joxemari Etxebeste dugu Maria Dolores Agirre gertutik ezagutzen zuenetako bat, eta honela mintzo da Altzateko Jaun eta Amal itzulpenak biltzen dituen liburuskaren hitzaurrean berari buruz: "Antzes talde osoa bildu eta banan banan, itzez itz, euskera jatorrean nola esan erakusten. Lan ixilia. Illuntzean asi eta gaueko amar-amaikak arte. Bere gozoan ordea, ez zuan barkatuko. Bein eta berriz errepikatu arazi esaldi bera, poliki xamar esan bitarte". Etxebestek Maria Dolores Agirrek zuen

perfekzionismorako joeraren berri ematen digu geroxeago: beti izaten omen zuen antzerkia estreinatzeko egunean ere, hitz bat edo beste aldatu beharra, esaldia borobilago gelditzen zeneko aitzakiaz. Nondik ateratzen zuen denbora Maria Dolores Agirrek hori dena egiteko? Joxemari Etxebestek argi eta garbi esaten digu: gauari -loari- lapurtzen omen zizkion orduak. Gero, egun argiz, edozein txolarte baliatuko zuen lo-kuluxka gozoa egin eta berehalakoan berriz ere zernahietarako gertu egoteko.

11



Toribio Alzagaren heriotzaren 50. urteurreneko omenaldian, Manu Oñatibia eta Xabier Aizamaren erdian Doctor Camino liburutegian 1991. urtean,

Gazzo, Garcia Lorca, Tagore, Gheon, Buero Vallejo, Calvo Sotelo, López Rubio... Batzuk hobetsi eta beste askok gutxietsi egiten zituzten Maria Dolores Agirrek itzuitzen zituen autoreak. Baina deus epaitu aurretik sasoi haietan koka gaitezen komeni da: frankismoa indar betean zegoen eta baita zentsura ere. Marko horretan beraz, erraz uler daitekeen bezala, ez zuten, Maria Dolores Agirrerren gidaritzapean, lan makala egiten Euskal Iztundeko kideek.

Euskal Iztundearen 75. urteurrena zeia eta, aitormen berezia egin zitzaion Maria Dolores Agirreri 1990eko ekainaren 13an. Kazetariari zera adierazi zien apaltasunez Maria Doloresek: "Lan handia egindako jende asko dago. Gaur egun inork ez ditu gogoratu ere egiten. Izendatzen hasiko banintz bat baino gehiago ahaztuko litzaidake neuri ere. Horregatik ez dut hitz egin nahi". Larogeita hamalau urte zituela, 1997ko abuztuan hil zen Maria Dolores Agirre. Atzean geratzen dira, 1975. urtean erretiratu zen arte, Maria Dolores Agirrerren eskutik Euskal Iztundeak antzeztutako 100 antzezemanaldi eta 33 antzerki-obra desberdin.



Donostiako Bagera Elkarteak Maria Dolores eta taldeko antzezleei egindako omenaldian 1994ko abenduaren 3an.

HEZURMAMIZKO PERTSONAIK

Idatzitako teatro-lana taulara eramana izateko izaten da izkiriatura. Ez da aski idatzi eta zuzentzea. Orain arte aipatu ditugunak antzezlanen idazle modura aipatu baditugu, hemendik aurrera, idatzitako horiek guztiak hezurmamitu eta pertsonaien azalaren azpian sartzen diren haiek hartu behar ditugu bereziki kontuan, idatzitakoaren exekutatzailerik diren heinean. Segidan aipatzera gatozen hauetako zenbaitek pieza txikiren bat idatziz idazlearen lurraldera sartu-irteeraren bat egin bazuten ere - zenbaitetan elkar lanean idatziriko antzez-jolas laburrak, "juguetes cómicos", idatzi ohi zituzten-, antzezle-lanak burutu zituzten nagusiki.

SINESGARRITASUNAREN BILA

Barrenen arra antzezlanen aurkezten zuen garaian, Marcelino Soroak zera aitortzen zuen: hagitzen penatzen zuela bere lehen obretan euskal emakumezko aktorerik ez agertzeak. Ez ei zegoen emakumezko aski prestaturik taula gainera igotzeko. Horregatik, ordura arteko obretan, bere burua mugaturik ikusten omen zuen Marcelino Soroak, gizonezko pertsonaiak baino ez zituzten obrak idazten zituenez, halabarrez.

13



Toribio Alzaga Felisa Areitioaurtena
atzean duelarik, Jezarritakoen artean
eskumaldekoa, Pepita Aramendi.

Istorioan emakumezkoren bat agertzen bazen, gizonezkoak zirenez emakumezko hauen paperak betetzen zituztenak, trikimailuren bat erabiltzera jo ohi zuten beti: hala nola, emakumeak mututzea -*Urrutiko inchaurreak* antzezlanean kasu- edota zorabio batek jota sena galdurik lurrera erortzea -*Barrenen arra* obran-. Hartara, emakumezkoaren papera gizonezko batek egin zezakeen, desberdintasuna gehiegi ez nabaritzeko moduan. Baina, erraz uler daitekeenez, egoerak bortxatu eta artifizialki bihurtzea zekarren era horretako trikimailuak behin eta berriz erabiltzeak.

Oholtza gainean antzezteko gaitasuna zuten emakume-gabezia hori, Euskal Iztundeko ikasle aurreratuen lanaren ondorioz desagertzen da. Horrela bada, Barrenen arra lanaren egokitzapen eszeniko berria egitean, zera erabakitzen dute: obran zegoen emakume bakarraren presentzia areagotzea eta Andre Prudenchi delako pertsonaia berri bat eranstea antzezlanari, obra borobilduz eta sinesgarriago bihurtuz.

EUSKAL IZTUNDEA: ALZAGAREN GANBARA HURA ...

1913.urtean Lukas Zulaika zinegotziak eskaera bat luzatu zion Donostiako udalari urtero antzerki-sari batzuk antolatu zitzala eskatuz. 1915ean, Euskal Jaietako Batzordeak txosten bat prestatu zuen eta euskal antzerkia sustatzea helburu izango zuen katedra baterako deia egin zen: Cátedra Municipal de Declamación Eúscara de San Sebastián. Katedra hura irabazten zuena izango zen Euskal Iztundearen buru.



Toribio Alzagalen taldea Eibarren.

Toribio Alzagak bereganatu zuen irakasle katedra hura. Horrenbestez, bere gain hartu zuen, euskaraz ozenki irakurtzen eta deklamatzeko irakasteko ardura, eta baita mimika eta mugimendu eszenikoa irakastekoa ere. Guztiz praktikoa zen irakaskuntza, agerikoa den bezala.

Donostiako San Juan kalean bizi zelarik, Toribio Alzagak seigarren solairua hutsik zeukan: antzoki moduan prestatuta. San Juan kaleko seigarren solairu hori antzerkia egiteko baliatzen zuen Toribio Alzagak, bertan garatu zelarik antzerki-eskolaren lana lehen pausoetan: Pepita Aramendi, Felisa Areitioaurtena, Bittori Artola, Ramonita Mezkita eta Bittori Arrieta ziren taldeko emakumeak.

Garai hartan jada planteatzen da urte askotan bizirik iraungo duen kezka bat: zenbateraino kontsumitze den euskal kultur produktu bat abertzaletasunagatik edota produktu beraren kalitateagatik. Antzezpenen kalitatea ardatz hartuta kalitatezko teatroa egitea izan behar zuen helburua, antzezlanen arrakasta entzulegoaren abertzaletasunaren mende egon ez zedin. Hori zen

helburua, printzipioz. Egia zen gerraurreko garai hartan antzerkiak berak baino axola handiago zuela giro euskalduna aurkitzeak eta eguneroko bizitzako zeregin eta arduetatik antzezlan komikoen bidez ihesbideak topatzeak. Hau, jada aurreratu dugun bezala, batipat donostiarren antzerkian gertatzen zen, bilbotarrean politika eta ideia abertzaleen zabalkundeak baitzuen garrantzirik handiena, Sabino Aranaren eraginez, ziur aski. Garai hartako lekukorik adituenetakoa den Iñaki Barriolak adierazi izan duenez, egile bakoitzak joera jakina zuen, eta horrela, ikusleak egilearen izena jakite hutsarekin jakin zezakeen, gutxigora behera, zer ikustera zihoan.

Euskal Iztundeak gehien errepresentatu zuen lana, Ramuntxo obraren ondoren, Katalina Elizegiren Garbiñe izango da -dramak dira biak-. Antzetzaldi gehienak Donostian izan baziren ere Gipuzkoan zehar beste hainbat eman zituzten, eta Bizkaian eta Lapurdin bakarren bat baino ez.

MEREZITAKO LAUDORIOAK ANTZEZLEENTZAT

"Estuvo muy en carácter la Srta. Artola al interpretar su papel de 'andre Eulali'". "De éxito colosal podemos calificar el obtenido por la Srta. Aramendi en su papel de 'andre Prudenci'. Fue grande su salto en la espinosa senda del arte. Vea ahora la manera de perdurar en la misma altura." Barrenen arra obran parte hartzen zuten Bittori Artola eta Pepita Aramendirentzat ziren loreak. Eta ez dira bakarrak. Garaiko egunkarietan gisa honetako hainbat erreseina topa ditzakegu hemerrotekak arakatuz gero.

Pepita Aramendik (Donostia 1896-1968), antzerkiaren mundura inguratu ziren bere garaiko emakume gehienek moduan, irakasle-ikasketetarantz bideratu zituen bere ahaleginak. Ez zuen, dena den, maistra-ikasketak bukatzerik izan. Antzerkizaletasuna ordea, txiki-txikitatik eraman zuen bihotzean eta Toribio Alzagaren inguruko antzerki-eskolan hasi zenean, ume bat zen oraindik. Maritxu

pertsonaia nagusiaren papera bete zuen Pepita Aramendik Francisco Arostegiren Arantza obran. Toribio Alzagak moldaturiko Marcelino Soroaren Ezer ez, ta festa obraren egokitzapenean ere, Kasimira, protagonistarena egiten zuen eta protagonistarena egiten zuen halaber Andre Joxepa Tronpeta (1921) obran ere. Loreti antzezlanean ere parte hartu zuen, besteak beste.



Toribio bera (1861-1941).

1936an, gerrarekin batera, euskal antzerkia hutsean geratu zen eta urte batzuetako etenaren ondoren, 1945ean berrantolatuko zen Euskal Iztundea. Berpizkunde honen ondoren, Pierre Lotiren Ramuntxo obra berriro antzeztu zenean, Pepita Aramendik bere papera izan zuen, hortik aurrera erabat utzi zuelarik antzerkia. Hirurogeita hamabi urte bete zituen egun berean hil zen, 1968ko apirilaren 17an.

Felisa Areitioaurtenak (1 904-1 990) Zaldbarren (Bizkaia) jaioa izanagatik, bizitza guztia Donostian eman zuen. Aurrekoak bezala, antzerkia maite zuen eta oso gaztetxotan hasi zen antzerki-eskolan, bere lehen antzerki-papera hamalau urte besterik ez

zituela antzeztu zuelarik Toribio Alzagarekin. Sorginarena egin zuen Shakespeare-ren Macbeth lanaren moldaketa zen Yrritza obran (1 925) eta Bateko urria delakoan ere parte hartu zuen (1 924). Bere paperik bikainena, dena den, Pierre Lotiren Ramuntxo obran parte hartzean lortu zuen, gehienek ustez. 1945ean, Euskal Iztundea berrantolatu ondoren, Ramuntxo berriro antzezteara erabakitzen dutenean, Felisa Areitioaurtenari deituko diote Pantxikaren papera egiteko. Berak uko egingo dio ordea, antzerkian aritzeko garaia joana zitzaiola esanez. Hala ere, Felisa ordezkoko gelditu zen. Frankismo garaiko urteetan Loiolako auzoan bizi izan zen, janari denda bat ogibide zuela. "Felisa la vasca" esaten omen zioten han, militarrez inguratuta zegoen hartan.



Donostiako Antzoki Zaharra

Bittori Arrietari dagokionez, bera da *Rotxilen sakeltxo*a obra laburreko (1918) protagonista -Miss Margeriterena egiten duena-. Gainera, aipatzekoa da antzezlan hau -egintza bakarreko antzez-jolasa, "juguete cómico en un acto", dena- Bittori Arrietak berak idatzia dela, Maria Ariztegieta, Pepita Aranburu, Eustakia Olaso eta Konsuelo Aranbururekin elkarlanean. Hauxe dugu beraz, antzerkilan ttikiak aktoreek eurek idazten zituzteneko adibideetako bat.

*Rotxilen sakeltxo*a obran protagonistarena egiteaz gain, Bittori Arrietaren izena garaiko hainbat funtziotako karteletan irakur genezake. Horrela, berak eman zien bizitza Katariñe Eieizegiren Loreti obrako Loretiri, Garbiñe obrako Garbiñeri eta

beste hainbati. Atzetorkiya obran eta Ezer ez, ta festa obretan ere parte hartu zuen, bi besterik ez aipatzeagatik.

Bukatzeko, hona hemen Bittori Arrietak Barrenen arra obra antzeztean garai hartako egunkari bateko kronikagile bati eragiten dion zirraren erakuskaria edo lagina: "La Srta. Arrieta, artista de sensibilidad exquisita, de asombrosa flexibilidad, que encarna a maravilla los tipos ardientes y apasionados. Si consigue, y lo conseguirá sin gran esfuerzo, mejorar la dicción un tanto atropellada en algunas ocasiones, será la artista ideal, verdadera estrella del arte dramático eúscaro".



Miren Arizmendi.

Donostia aldeko antzerki-zirkulutik aparte antzean ibili ziren zenbait emakume ere aipatzekoak dira. Horien artean, Maria Arizmendi, Janamari Malharin eta Miren Arrizabalaga ditugu adibide.

Maria Arizmendi Urnietan jaio zen 1912an. Gerra aurretik hasi zen beste hainbatekin batera batzokiaren inguruan antzezpenak egiten eta lau urtez jardun zuten, gutxigora behera, harik eta gerrak beren bidea erabat eten zuen arte. Jostun lanetan aritua izaki, bere etxetik pasatzen zen herri osoa -egunkarietan baino notizia gehiago jakiten e; ziren bere etxean-. Gerra aurretik egindako antzerkiari dagokionean, politenak Donostiako Kursaalera Sasaki-Naski izeneko lokalean egin ohi zituzten emanaldiak omen ziren beretzat. Antzerkia, kantaldia, dantza eta denetik bazen han. Negarrez igaro zen atsoa eta Uste diñat, ya lo creo antzeztu izana oroitzen du berak, garaitsu hartan. Gerra garaian, asaltuko goardiak beren etxera joan eta antzerki-taldean ibiltzen ziren hiru ahizpak "rojo separatista" batzuk zirela esanez, ilea moztu zieten zeharo. Maiatzeko azken

igandean emanaldi bat eman ohi zuten eta eguberrietan errepikatzen zuten. Sakristia izaten zuten antzoki eta ahoz ahokoak funtzionatzen zuen, ez baitzuten inon kartelik jartzen. Eta hala ere, sakristia bete.

1965ean Egi-bila taldea sortuko zen Urnietan, hamasei udez iraungo zuena. Maria Arizmendi izango da bertan zuzendari. Aurkeztu zituzten obren artean honokoak aipa daitezke: Gai dagoenaren indarra, *Maite ere neurritz*, *Kalifornia Ku-Ku*, *Igartutako landarea...* Gehien antzeztu zutena Iñaki Begiristainen Muga ausleak izan zen -hogeita hamazortzi emanaldi orotara-. Komediak eta gizarte-gaiak

Janamari Malharin.



lantzen zituzten bereziki -drogaren inguruko antzerki bat ere egin zuten-. Politikan gehiegirik ez nahasteko arreta berezia jartzen zuten, dena den.

Janamari Malharini dagokionez, hau ere 1912an jaio zen, Donapaleun. Irakasletzan aritua, urte askotan zuzendu izan zituen antzerki-taldeak. Hogeitabost urterekin sartu zen antzerkiaren munduan katezismoko haurrekin urte bukaerarako antzerkia prestatzen. Bera arduratu zen *Urriki latza, Herriko bozak, Etchaun, Pettan mihiku, Ene gizon gaia, Mutil berri, Otsoak artaldean, Sarako lorea...* bezalako lanen taularatzeaz. Mugerre eta Itsasuko gazteekin, makina bat aldiz egin zituzten antzezlanok.

Miren Nekane Arrizabalaga berriz, Ondarrun jaio zen 1911.urtean. Arrantzale familiakoa izaki, arrainaren karreian eta sareen konponketan lan egin zuen lehenik eta sukaldari aritu zen beranduago. *Negarrez igaro zen atsua, Damua garaiz eta Uste diñat, ya lo creo* izeneko antzezlanetan pa hartu zuen, besteak beste. Gerrak ordea, kasu honetan ere, bertan behera uzta zizkion proiektu guztiak eta gerrondoan ez zen taula gainera bueltatu.

Hirurek ere, arrazoi berdinak zituzten antzerkiaren mundura hurbiltzeko: euskara maite zutela eta euskara gutxi egiten zenez, euskararen erabilpena zabaltzea zuten helburu.

* * *

Lan hau amaitzeko, 1990.ean, Euskal Iztundearen 75. urteurrenean omendu zutenean Maria Dolores Agirrek esandako hitzak gogoratzea izango da, behar bada, onena: "Lan handia egindako jende asko dago".

Eta hauetako hainbat itzalean, erantsi beharko genuke.



Miren Arrizabalaga